

Ariyo, Antxon



Jose Ignazio Ansorena
TXISTULARIA

Honen eta antzeko herri abestien indar dramatikoaren lehenengoz Manuel Lekuonak aztertu zuen:

*Itsasoa laino dago
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maiteago
arraitxoak beren
umeak baino.*

Aurrenik girotzeko irudi bisuala eta zapla mamia. *Etena* deitzen den teknika. Apaiz hau 1936ko Gerra Lasarteko Brigiden komentuan babestu zen, nazionalak akabatuko zuten beldurrez. Ondoa jaio zen Antxon Mercero urte horretantxe eta, sei hilabeteko haurra zelarrik, aita akabatu zioten gerra mendekuan. Antxonon ama maiz hurreratu zen On Manuelengana kontsolamendu eske. Honen iloba, Andoni Unanue Lekuona, izan zen hil arte, Antxonon adiskide minena.

Antxon 1990ean ezagutu nuen, filme batean neuk paper bat betetzea nahi zuelako: *Está lloviendo y te quiero*. Etenaren teknika izenburuan. Antxonon haur eta gazte garaiak ekartzen zituen gogora, Francoren urterik latzenak, ikuspegi kementsu, errealista eta herrikoitik. Filmea ez zen inoiz errodatu. *Mandamasetan* inori ez omen zitzaion gustatu haren kuraia librea eta ez zioten inongo laguntzarik eman nahi izan, ez Madriden, ezta Euskal Herrian ere.

Burutu ez zen filme horrek gure adiskidetasuna mamitu zuen. *Txirri, Mirri eta Txiribiton* pailazoan

zale porrokatu bihurtu zen eta Madrilgo biloba ugariak –horretan ere emankorra izan baita– euskarazko gure bideoak ikusten zituzten eta buruz ikasten.

La hora de los valientes –zorrotz, umoretsu eta samurra– egin zuenean ere, Espainiako agintariak ez zuten ontzat hartu anarkisten aldeko hautua eta boikot modukoa jasan zuen, filmeak tamainako sariak lortu arren. Berari bihoztun izateko ordua apur bat geroago iritsi zitzaion. Zerbait gertatzen ari zitzaizola konturatuta, Mediterraneoko inmigratioari buruz –orain hamabost urte!– ilusio handiz prestatzen ari zen filma bazterrean utzi eta *Y tú ¿quién eres?* Alzheimerri eskainitakoa ondu zuen. Pres-tatu bitartean, Espainian barrena jira-buelta handia eman zuen bere lagun ugariak bazkaritara gonbidatuz. Geroago jakin genuen azken agurra zela.

Behin inor agurtzeko *Ariyo* esaten entzun zidalarik, berehala aipatu zidan: “Amak eta Lasarteko baseritarrek horrela agurtzen zuten, *Ariyo*. Ez orain zabaldu den *Ayo* hegamotoz”.

Negu honetan euria izan dugu goitik, behetik eta alboetatik ere. Antxonek buruan geratu zitzaion filman *Está lloviendo y te quiero* aukeratu zuen izenburu: euskaldunoi esaten zigun hori. Gidoiaren bukaeran borroka armatuaren amaieraren iragarpena zeterren. Kointzidentzia kosmikoa ematen du: ETA desegin da bera hil baino egun gutxi lehenago.

Jada atertu du, baina maite zaitugu. Ariyo, Antxon. ■

Pilota kontuak



Leire Narbaiza
Arizmendi
IRAKASLEA
@txargain

Parkean nago, umezain. Zanbuluak daude, eta espazio huts bat. Inguruko pretilean jarri naiz. Badaroat tartetxo bat, eta mutiko batzuk hasi dira futboleak, aurrean. Halako batean, indarrez, pilotak oinean jo nau. Min handirik ez dit egin, baina ume bat altzoan dut, eta beldur naiz ez ote duen beste jaurtiketa batek magaleko umea kolpatuko; izan ere, konturatu naiz porteria bat kokatu dutela, eta ni atearen erdi-erdian nagoela. Agiraka egin diet, eta hamaika urte inguruko mutiko batek, hartzekoekin, esan dit ea ez ote den parkea denona. Nik, baietz, baina gurea ere badela.

Egia esan, espazio gutxi dago kalean horrelako kiroletan jarduteko. Gune bat dagoenean, gainera, enbarazu egiten dute, eta lekuz aldatzera behar-tzen ditugu, Donostiako Egiako kantxetan lez.

Halere, eremu ez espezifikotik elkarbizitza gaitza da. Eskoletako jolastokietan ondo dakitenez, futbolak dena okupatzen du, zentralitatea hartu, beste guztiak periferiara baztertu, eta jaun eta jabe bihurtu. Batez ere jaun, baloi erabiltzaileak nagusiki mutilak direlako.

Uste nuen gaztelaniazko *por pelotas* esamoldeak gizonezkoen anatomiaren zati bati zegokiola. Baina baloien kontuari begiratuta, ez ote dago dena lotuta? ■